

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2020KO ABENDUA

Euskal AEko industria-jarduera % 13,3 jaitsi da 2020 osoan


Industria produkzioaren indizeak % 1,4 egin du behera abenduan, 2020ko azaroaren aldean

2020. urte osoan, Covid-19aren osasun-krisiak markatua, Euskal AEko industria-jarduera % 13,3 jaitsi da 2019. urtearekin alderatuta, Eustatek landutako datuen arabera.

Industria-produkzioa murriztu egin da 2020an industria-sektore handi guztietan. Urteko jaitsiera metatua % 15,8koa izan da *Bitarteko ondasunetan*, % 12,6koa *Ekipo-ondasunetan* eta % 11,9koa *Energian*. *Kontsumo-ondasunek*, bestalde, urtean % 6,7ko produkzio-jaitsiera izan dute guztira; *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 13,2 egin dute behera, eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorrek* % 5,2.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2020ko balantzea negatiboa izan da hiru lurraldeetan. Bizkaian jaitsi da gehien industria-produkzioa 2020 osoan, indizearen % 16,0ko jaitsiera metatuarekin. Haren atzetik Araba dago, % 13,2ko aldakuntza metatu negatiboarekin. Azkenik, Gipuzkoan, 2020an metatutako jaitsiera % 10,6koa izan da.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2020ko Abendua

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Abe2020 / Abe2019	A(Abe2020) / A(Abe2019)(*)	Abe2020 / Aza2020	Aza2020 / Urr2020
Indize orokorra				
Euskal AE	-7,2	-13,3	-1,4	0,2
Araba/Álava	-10,0	-13,2	-3,3	-1,2
Bizkaia	-11,7	-16,0	-2,6	1,0
Gipuzkoa	-0,9	-10,6	0,9	0,2
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-3,9	-6,7	-0,8	0,6
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	2,6	-13,2	0,5	3,2
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-5,2	-5,2	-1,1	0,0
Ekipo-ondasunak	-7,5	-12,6	-5,3	0,4
Bitarteko ondasunak	-6,8	-15,8	-0,7	0,0
Energia	-18,1	-11,9	-6,0	10,2

(*) 2020ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2019eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2020KO ABENDUA

2020ko abenduan, industria-jarduera % 1,4 murriztu da aurreko hilaren aldean, urtaro-eraginik gabeko terminoetan. 2019ko abenduarekin alderatuta, eta egutegiko termino homogeneotan, urte arteko jaitsiera % 7,2koa izan da. **Ondoz ondoko hamargarren hilabetea da urte arteko atzerakada izan duena.**

2020ko abenduko indizearen bilakaerak, 2019ko abenduarekin alderatuta, zeinu negatiboa izan du industria-sektore handi guztietan, egutegiko termino homogeneotan. *Energia* % 18,1 jaitsi da, *Ekipo-ondasunak* % 7,5 jaitsi dira, *Bitarteko ondasunak* % 6,8 murriztu dira urtetik urtera eta, azkenik, *Kontsumo-ondasunak* % 3,9 jaitsi dira orotara, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* % 5,2 jaitsi direlako, zeren *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 2,6 igo baitira.

Hil arteko terminoetan, 2020ko abenduan 2020ko azaroaren aldean, eta urtaro-eraginak behin zuzenduta, zeinu negatiboa ere ikusten da industria-sektore handi guztietan. Hala, *Energia* % 6,0 jaitsi da, eta *Ekipo-ondasunak* % 5,3. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 0,8 egin dute behera, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* % 1,1 egin dutelako behera, zeren *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 0,5 egin baitute gora. *Bitarteko ondasunak*, azkenik, % 0,7 jaitsi dira abenduan, 2020ko azaroarekin alderatuta.

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisu handienekoak diren sektoreen artean, 2020ko abenduan urte arteko portaerarik onena izan dutenak hauek izan dira: *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 5,2ko igoera produkzioan), *Material eta ekipo elektrikoa* (% 4,6ko igoera) eta *Kautxua eta plastikoak* (% 4,0ko igoera). Hauek dira, aldiz, pisu handieneko sektoreetan jaitsierarik handienak eduki dituztenak: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 15,2 behera), *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 14,0 behera) eta *Garraio-materiala* (% 13,7ko jaitsiera).

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-14,0
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-15,2
09 - Kautxua eta plastikoak	4,0
13 - Makineria eta tresneria	0,2
14 - Garraio-materiala	-13,7
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-7,7
12 - Material eta tresneria elektrikoa	4,6
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	5,2

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeetan, Industria-produkzioaren indizearen abenduko urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan, baina ez modu homogeneoan. Hala, Bizkaian % 11,7ko beherakada izan da 2019ko abenduaren aldean, Araban % 10,0koa eta, azkenik, Gipuzkoan jaitsiera % 0,9koa baino ez da izan.

Hil arteko terminoetan, 2020ko abenduan 2020ko azaroaren aldean, eta urtaro-eraginak atera ondoren, Gipuzkoan produkzioa % 0,9 hazi dela ikusi da. Adiz, Araban % 3,3 jaitsi da, eta Bizkaian % 2,6.

INFORMAZIO OHARRA

Egutegiaren ondorioak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik aparteko zirkunstantzia hauetan. Haiei esker, abenduko indizea laginaren **% 94,11ko** estaldurarekin kalkulatu da –informazio hori urtarrian jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62